

Proiektuaren deskribapena

ZEPA taldeko kideak dutxa moderno bat sortzea erabaki dugu. Gailu berri honek, dutxan erabiliko den ur kantitatea programatzen du. Gaur egun gehiegizko iur kontsumoari erreparatuz, idea hona iruditu zaigu produktu hau sortzea gure inguruneari laguntza txiki bat emateko. Gure helburua erabiltzaileek beharrezkoa den ur kantitatea soilik erabiltzea da. Modu honetan, uraren alferrikako gastua eragotzi, eta gainera aurreztu egiten dute.

Dutxan zer egin behar duzun adierazi behar duzu horman egokituta dagoen pantaila batean, eta dutxak behar duzun ur kopurua kalkulatu du, gero ur kantitate hori botatzeko. Gainera dutxa honek, sentsoz batzuen bitartez funtziona dezake, honela ura alferrik gastatzea eragozten da. Sentsoz hauek dutxa buruan kokatzen dira eta bere azpian jartzean automatikoki dutxa buruak ura botatzen du, eta kentzean aldiz gelditu egiten da.